

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 742/2008/EE ERABAKIA, 2008ko uztailaren 9koa, hainbat estatu kidek, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiliz adineko pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko, abian jarritako ikerketa eta garapen programa batean Europako Erkidegoak parte hartzeari buruzkoa.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «DECISIÓN N^o 742/2008/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 9 de julio de 2008, sobre la participación de la Comunidad en un programa de investigación y desarrollo emprendido por varios Estados miembros y destinado a mejorar la calidad de vida de las personas mayores mediante la utilización de las nuevas tecnologías de la información y la comunicación» (*Diario Oficial de la Unión Europea, L 201/53 de 30/7/2008*)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAKO KONTSEILUAK BATERA HARTUTAKO ERABAKIAK

**EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 742/2008/EE ERABAKIA,
2008ko uztailaren 9koa,**

hainbat estatu kidek, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiliz adineko pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko, abian jarritako ikerketa eta garapen programa batean Europako Erkidegoak parte hartzeari buruzkoa.

(Testu egokia EEeri dagokionez)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNAREN KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Trataturak, eta, bereziki, haren 169. artikulua eta 172. artikuluko bigarren paragrafoa aztertu dituzte,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki ⁽¹⁾,

Honako hau kontuan hartuta:

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1982/2006/EE erabakiak, 2006ko abenduaren 18koak, ikerketako, garapen teknologikoko eta frogapeneko ekintzetarako Europako Erkidegoko zazpigarren esparru-programari buruzkoak (2007tik 2013 arte) ⁽²⁾, (hemendik aurrera “zazpigarren esparru-programa”) Erkidegoak bere estatu kideek abian jarritako ikerketa- eta garapen-programetan parte hartuko duela aurreikusten du, baita Trataturako 169. artikuluari jarraiki, programa horiek gauzatzeko egituretan parte hartuko duela ere.

(2) Zazpigarren esparru-programan, irizpide batzuk ezarri dira Trataturako 169. artikuluan xedatutako ekimenak zein esparrutan abian jar daitezkeen zehazteko: Erkidegoko helburuekiko egokitasuna, ezarritako helburua argi zehaztea eta helburuak zazpigarren esparru-programaren araberakoak direla bermatzea, alde zuzeneko oinarria izatea (egungo estatu mailako ikerketa-programak edo aurreikusitakoak), balio erantsia Europan, masa kritikoa bertan zehaztutako programa-kopuruari eta haien tamainari dagokionez, nahiz programa horietan egiten diren jardueren antzekotasunari dagokionez; eta helburu horiek guztiak lortzeko baliabide egokiena Trataturako 169. artikulua izatea.

(3) Kontseiluaren 2006/971/EE Erabakiaren arabera (2006ko abenduaren 19koa, ikerketako, garapen teknologikoko eta frogapeneko ekintzetarako Europako Erkidegoko zazpigarren esparru-programa (2007tik 2013 arte) gauzatzeko duen berriazko “Lankidetzaren” programari buruzkoa ⁽³⁾ –hemendik aurrera, berriazko “Lankidetzaren” programa–), inguruak lagundutako eguneroko bizitzaren esparruari buruzko 169. artikuluko ekimen bat da egokienetarikoa bat, zertarako eta Trataturako 169. artikuluan xedatutakoaren babespean gauzatzeko estatu mailako ikerketa-programetan Erkidegoak parte har dezan.

(4) 2005eko ekainaren 1eko jakinarazpenean, hain zuzen ere «i2010: hazkuntza eta lanpostuen aldeko Europako informazio-gizartearen» izenekoan, Europako Batzordeak proposatu zuen zaharkitzen ari den gizartearen adineko pertsonen arteko ekimen bereizgarria abian jartzea.

(5) 2006ko urriaren 12ko jakinarazpenean, «Europaren etorkizun demografikoa: erronka aukera bihurtu» izenekoan, Europako Batzordeak azpimarratu zuen populazioaren zahartzea dela Europar Batasuneko estatu kide guztiak aurre egin beharreko erronka nagusienetako bat; eta teknologia berriak gehiago erabiliz, osasungintzako gastuak hobeto kontrolatzeaz gain, ongizatea hobetu eta adineko pertsonen parte-hartzea susta daitekeela, aldi berean, Lisboako Estrategia berrikusien arabera, hazkuntza eta lanpostuetarako lehiakortasuna handituz.

(6) Bereziki Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien esparruan (IKT), populazioaren zahartze etengabea adineko pertsonen premiei erantzuteko ondasun eta zerbitzu-merkatu berri bat sortzeko aukera gisa ikus daiteke. Hala ere, IKTen garapen azkarrak eta horien erabilera ezin dute gizarte-bazterkeria sustatu edo eten digitala areagotu; hala eta guztiz ere, prestakuntza digitala ezinbesteko baldintza da partaide guztiak ekimenaren barruan sartu eta informazioaren gizartearen parte hartzeko.

(1) Europako Parlamentuaren Irizpena, 2008ko abenduaren 13koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko apirilaren 23koa.

(2) L 412 EO, 2006.12.30ekoa, 1. or.

(3) L 400 EO, 2006.12.30ekoa, 86. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(7) Inguruak lagundutako eguneroko bizitzaren esparruan abian jarritako ekimen horrek Europako populazioaren zahartzearen errealtatea kontuan hartu behar du: bertan, emakumeek gizonek baino bizi-itxaropen handiagoa dutenez, gizon baino emakume gehiago daude.

(8) Bizitza aktiboa luzatzea lanaren esparruan abian jarritako irizpide berrietako funtsezko elementua da. Populazioaren zahartzeari aurre egiteko, Europar Batasunak proposatzen du herritarren potentzial guztia mobilizatzea, haien adina edozein izanda ere, betiere bizi-zikloaren arabera ikuspegitik; eta bereziki azpimarratzen du esparru horretan estrategia globalak ezarri behar direla, zatitu gabekoak.

(9) Gaur egun, estatu kide batzuk estatu mailako ikerketa eta garapen-programa edo -jarduerak egiten ari dira, IKT eta populazioaren zahartzearen esparruan. Hala ere, ekimen horiek ez daude Europa mailan behar bezala koordinatuta, eta ez du uzten Europa mailako ikuspegi koherente bat ongi hartzen zahartzeari buruz, IKTetan oinarritutako teknologien ikerketan eta produktu nahiz zerbitzuen garapenean.

(10) Europa mailako planteamendu koherentea ezarri nahi dugu IKTen esparruan, ongi zahartzeko eta ongi jarduteko. Horretarako, hainbat estatu kidek ikerketa eta garapenerako programa bat sortu dute IKTen esparruan, informazioaren gizartean hobeto zahartzeko helburupean. Programa horrek «Inguruak lagundutako eguneroko bizitza» izena du (aurrerantzean «AAL programa bateratua»), era horretan mekanismo bakar eta bateratua izateko kudeaketan eta finantza-baliabideetan sinergiak lortzeko eta ebaluatzeko. Ebaluaziorako mekanismo horrek aditu independenteen laguntza izango du, eta zazpigarren esparru-programan enpresa, ikerketa-zentro eta unibertsitateen partaidetza, eta programa horretan egindako ikerketen emaitzak zabaltzeko arauak ezartzen dituen (2007-2013) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 18ko 1906/2006 (EE) Araudian ezarritako jardunbidean ⁽¹⁾ eta Europako hainbat herrialdetako ezagutza tekniko eta baliabideen konbinazioan oinarrituko da.

(11) AAL programa bateratuaren helburua populazioa zahartzearen erronkari aurre egitea da, horretarako Europa mailan, estatu kideen artean, eskala handiko lankidetzak sustatzeko beharrezkoa den antolakuntza-esparru eta esparru juridikoa sortuz, hain zuzen ere informazioaren eta komunikazioaren teknologien eta zahartzaroaren esparruetan ikerketa aplikatua eta berrikuntza garatu ahal izateko, Europako gizartea zahartzen ari baita. AAL programa bateratua koordinatu eta modu bateratuan gauzatzea onartu dute Alemania, Austria, Belgika, Txipre, Danimarka, Eslovenia, Espainia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Hungaria, Irlanda, Italia, Luxenburgoko, Herbehereak, Polonia, Portugal, Erresuma Batua, Errumania eta Suediak (aurrerantzean “Estatu kide parte-hartzaileak”), nahiz Israel, Norvegia eta Suitzak. Zazpigarren esparru-programaren irauinaldian, partaidetzaren balioa, guztira, 150 milioi eurokoa izango da gutxienez. Herrialde horietako bakoitzak AAL programan duen parte-hartzea izango da estatu bakoitzeko ikertzaile-erkidegoaren eskari potentzialarekiko proportzionala den gutxieneko diru-ekarpenaren arabera, eta ekarpen hori gutxienez 200 000 eurokoa izango da, urteko lan-programan parte hartu ahal izateko.

(12) AAL programa bateratuak enpresa txiki eta ertainen (ETE) partaidetza ere sustatu behar du bere jardueretan, hain zuzen ere zazpigarren esparru-programan ezarritako helburuei jarraiki.

(13) AAL programa bateratua Erkidegoak parte hartzea onartu dute estatu kide parte-hartzaileek eta Israel, Norvegia eta Suitzak, AAL programa bateratuaren eragina handitzeko. Erkidegoak 150 milioi euroko diru-ekarpena eginez parte hartuko du programan. Erkidegoaren diru-ekarpena gai horretarako ezarritako kredituetatik atera behar da, AAL programa bateratua zazpigarren esparru-programaren helburu zientifikoen arabera denez, eta AAL programako ikerketa-esparrua “Lankidetzak” programako IKTen barnean dagoenez. Beste finantzaketa-iturri batzuk ere erabil daitezke horretarako; esaterako, Europako Inbertsio Bankua (EIB), hain zuzen ere, EIBk eta Europar Batzordeak 2006/971/EE Erabakiko III. eranskinean xedatutakoari jarraiki batera sortu duten Elkarbanatutako Arriskuko Finantzaketa-Tresnaren bidez.

(14) Diru-laguntza eman baino lehen, bete beharreko baldintza nagusia da estatu kideetako erakunde eskudunek estatuaren abian jarritako ikerketa eta garapen-programa nahiz jardueretan modu bateratuan parte hartzeko konpromiso formalak egitea, eta konpromisoa hartzea AAL programa bateratua gauzatzeko finantzaketan ekarpenak egiteko.

(15) “Lankidetzak” berariazko programan xedatutakoaren arabera, estatu mailako ikerketa-programak modu bateratuan gauzatzeko, gauzatze-egitura espezializatu bat eduki behar da, edo horrelako egitura bat sortu behar da.

(16) Estatu kide parte-hartzaileek erabaki dute AAL programa gauzatzea egitura horren esku uztea.

(17) Gauzatze-egitura espezializatu Erkidegoko diru-laguntzaren hartzailea izan behar da, eta bermatu behar du AAL programa bateratua modu eraginkorrean gauzatzen dela.

(1) L 391 EO, 2006.12.30ekoa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(18) AAL programa bateratua modu eraginkorrean gauzatu dadin, gauzatze-egitura espezializatuak diru-laguntzak eman behar dizkie AAL programa bateratuan parte hartzen duten hirugarrenei. Programa horretan parte hartu ahal izateko, proposamenak egiteko deialdi bat egingo da, eta horren arabera hautatuko dira hirugarren partaide horiek.

(19) Erkidegoak diru-ekarpena egiteko, ezinbesteko baldintza da estatu kide parte-hartzaileek nahiz Israel, Norvegia eta Suitzak konpromisoa hartzea baliabideak emateko, eta beren diru-ekarpenak behar bezala ordaintzea.

(20) Erkidegoaren eta gauzatze-egitura espezializatuaren artean egingo den hitzarmeneko baldintzen arabera, Erkidegoak eskubidea du bere diru-ekarpena gutxitu, kendu edo baliogabetzeko, baldin eta AAL programa bateratua behar bezala egiten ez bada, edo erdizka nahiz berandu egiten bada. Aipatutako hitzarmen horretan zehaztuko dira Erkidegoaren diru-ekarpenaren modalitateak.

(21) Edozein estatu kidek aukera izan behar du AAL programa bateratuan parte hartzeko.

(22) Zazpigarren esparru-programak xedatutakoaren arabera, Erkidegoak eskubidea izan behar du AAL programa bateratura egin beharreko diru-ekarpenari buruzko baldintzak zehazteko, hain zuzen ere zazpigarren esparru-programara lotutako edozein herrialderen parte-hartzeari dagokionez, edo AAL programa bateratua gauzatzeko ezinbestekoa balitz, programa gauzatzen den bitartean, beste edozein herrialde sartu behar bada, betiere Erabaki honetan xedatutakoa betez.

(23) Kontseiluaren 2988/95 (EE, Euratom) Araudiak, 1995eko abenduaren 18koak, Europar Erkidegoko finantza-interesen babesari buruzkoak xedatutakoaren arabera ⁽¹⁾; Kontseiluaren 2185/96 (Euratom, EE) Araudiak, 1996ko azaroaren 11koak, Europako Batzordeak, Europar Erkidegoen finantza-interesak babesteko *in situ* egin beharreko kontrol eta egiaztapenei buruzkoak ⁽²⁾; eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1073/1999 Araudiak (EE), 1999ko maiatzaren 25ekoak, Iruzuraren Aurkako Europako Bulegoak egindako ikerketei buruzkoak ⁽³⁾ xedatutakoaren arabera, beharrezko neurriak hartu behar dira irregulartasun eta iruzurrik ez gertatzeko, eta beharrezko pausoak eman behar dira galdutako funtsak edota akats baten ondorioz gaizki ordaindu edo erabilitako funtsak errekupeatzeko.

(24) Kontseiluaren 1605/2002 (EE, Euratom) Araudiak, 2002ko ekainaren 25ekoak, Europako Erkidegoetako aurrekontu orokorretan aplikagarria den Finantza Araudia onartzen duenak ⁽⁴⁾ (aurrerantzean “Finantza Araudia”) eta Europako Erkidegoen aurrekontu orokorretan aplikagarria den Finantza Araudia onartzen duen 1605/23 (EE, Euratom) Araudiko arauei buruzko Batzordearen 2002ko abenduaren 23ko 2342/2002 (EE, Euratom) Araudiak ⁽⁵⁾ (aurrerantzean “garapen-arauak”) xedatutakoaren arabera, Europar Batasunaren diru-ekarpena zeharkako modu zentralizatuan kudeatu behar da, Finantza Araudiaren 54. artikuluko 2. paragrafoko c) idatz-zatian eta 54. artikuluan, nahiz garapen-arauen 2. artikuluan, 56. artikuluko 35. paragrafoan eta 38. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

(25) Ezinbestekoa da AAL programa bateratuaren esparruan egindako ikerketa-jarduerek funtsezko oinarri etikoak errespetatzea, bereziki Europar Batasunaren Tratatuaren 6. artikuluan eta Europar Batasuneko Oinarriko Eskubideen Gutunean zehaztutakoak; baita genero eta genero-berdintasunaren ikuspegitik integrazioa sustatzen duten oinarriak ere. AAL programa bateratua gauzatzean, kontuan hartu behar da zientzia eta ikerketaren esparruan emakumeen partaidetza sustatzea ere.

(26) Halaber, AAL programa bateratuak sustatu behar du estatu kide guztiek IKTen esparruko produktu eta zerbitzu guztiak eskuragarritasun-maila berean edo modu errazean eskuragarri edukitzea.

(27) 2010. urtean, Batzordeak tarteko ebaluazioa egin beharko du, eta bertan balioetsi beharko du AAL programa bateratuaren gauzatzearen kalitate eta eraginkortasuna eta ezarritako helburuekiko egindako bidea. Ebaluazio horretan zehaztu beharko da 2013. urtean azken ebaluazioa egin baino lehen tarteko beste ebaluaziorik egitea beharrezkoa den ere.

ERABAKI HAU HARTU DUTE:

1. artikulua

1. Zazpigarren esparru-programa gauzatzean, Erkiegoak diru-ekarpen bat egingo du “Inguruak lagundutako eguneroko bizitza” izeneko ikerketa eta garapenerako programarako (AAL programa bateratua); hain zuzen ere, honako hauek jarri dute abian programa hori: Alemania, Austria, Belgika, Txipre, Danimarka, Eslovenia, Espainia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Hungaria,

(1) L 312 EO, 1995.12.23koa, 1. or. Batzordearen 1233/2007 [EE] Araudiak (L 279 EO, 2007.10.23koa, 10. or.) aldatu zuen Araudia.

(2) L 292 EO, 1996.11.15ekoa 2. or.

(3) L 136 EO, 1999.5.31koa, 1. or.

(4) L 248 EO, 2002.9.16koa, 1. or. Azken aldiz, Batzordearen 1525/2007 [EE] Araudiak (L 343 EO, 2007.12.27koa, 9. or.) aldatu zuen Araudia.

(5) L 357 EO, 2002.12.31koa, 1. or. Azken aldiz, Batzordearen 478/2007 [EE] Araudiak (L 111 EO, 2007.12.27koa, 13.or.) aldatu zuen Araudia.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Irlanda, Italia, Luxenburgo, Herbehereak, Polonia, Portugal, Erresuma Batua, Errumania eta Suediak (estatu kide partaideak), eta Israel, Norvegia eta Suitzak.

2. Erkidegoak 150 milioi euroko diru-ekarpena egingo du gehienez, AAL programa bateratua gauzatzeko zazpigarren esparru-programaren iraunaldian, Erabaki honetako I. eranskinean xedatutako oinarriei jarraiki.

3. Erkidegoaren diru-ekarpena egingo da Europar Batasunaren aurrekontu orokorrean “Lankidetzaz” programa bereziaren barnean dagoen “Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiaak (IKT)” gaiari esleitutako kredituekin.

2. artikulua

Diru-ekarpena egiteko, baldintza hauek bete beharko dira aldez aurretik:

a) Estatu kide parte-hartzaileek nahiz Israel, Norvegia eta Suitzak frogatu beharko dute AAL programa bateratua abian jarri dela I. eranskinean azaltzen den moduan;

b) Estatu kide parte-hartzaileek eta Israel, Norvegia eta Suitzak, edota estatu kide parte-hartzaileek eta Israel, Norvegia eta Suitzak izendatutako erakundeek izaera juridikodun gauzatze-egitura bat ezarri edo izendatu beharko dute modu ofizialean. Egitura horrek AAL programa bateratua gauzatu beharko du; eta Finantza Araudiko 54. artikuluko 2. paragrafoko c) idatz-zatian eta 56. artikuluan nahiz garapen-arauetako 35. artikuluan, 38. artikuluko 2. paragrafoan eta 41. artikuluan xedatutakoari jarraiki, egitura horrek Europar Batasunak egindako diru-ekarpena jaso, esleitu eta egiaztatu egin behar du zeharkako kudeaketa zentralizatuaren esparruan;

c) Erabaki honetako II. eranskinean xedatutakoari jarraiki, gobernu-eredu egoki eta eraginkorra ezarri behar da AAL programa bateraturako.

d) Gauzatze-egitura espezializatuak modu eraginkorrean egin behar ditu AAL programaren jarduerak, I. eranskinean zehaztutakoak. Horretarako, diru-laguntzak jasotzeko proposamenak egiteko deialdiak antolatu beharko dira.

e) Estatu kide parte-hartzaileek eta Israel, Norvegia eta Suitzak konpromisoa hartu behar dute AAL programa bateratuaren finantzaketan parte-hartzeko, eta diru-ekarpen horiek ordaindu egin behar dituzte, bereziki AAL programa bateratuaren esparruan antolatutako proposamen-deialdietan hautatutako partaideen finantzaketarako.

f) Erkidegoan estatu mailako diru-laguntzetarako arauak bete beharko dira eta, bereziki, ikerketa, garapen eta berrikuntzarako EB mailan ezarritakoak ⁽¹⁾;

g) Bikaintasun zientifikoko maila handia dagoela bermatu beharko da, baita oinarri etikoak betetzen direla ere, betiere zazpigarren esparru-programako oinarri nagusiak, generoaren eta genero-berdintasunaren ikuspegitik integrazio-oinarriak eta garapen iraunkorrerako oinarriak betetzen direla bermatuz.

h) Eta, azkenik, AAL programa bateratuaren esparruan egindako jardueretan sortutako jabetza intelektualeko eskubideak arautzen dituzten xedapenak ezarri behar dira, baita estatu kide parte-hartzaileek eta Israel, Norvegia eta Suitzak herrialde-mailan abian jarritako ikerketa eta garapen jarduera eta programak arautzeko xedapenak ere, era horretan ezagutza-sorkuntza sustatu eta horien zabalpena eta erabilera bermatzeko.

3. artikulua

AAL programa bateratua gauzatzean, tratu-berdintasunaren, gardentasunaren eta aurreikusgarritasunaren oinarria bete beharko da eskatzaileekin, gauzatze-egitura espezializatuak hirugarrenei diru-laguntzak ematean, bereziki diru-laguntzak jasotzeko egindako deialdien ondoren hautatutako proiektuei; eta proposamenen ebaluazio berezi bat egin beharko da. I. eranskinean ezarritako oinarri eta prozedurei jarraiki, hirugarrenentzako diru-laguntzak emango dira bikaintasun zientifikoaren arabera, Europa mailako eragin sozio-ekonomikoaren eta AAL programa bateratuaren helburu globalekiko egokitasunaren arabera.

4. artikulua

Gauzatze-egitura espezializatuak ezarriko dituzte, hirugarrenei diru-laguntzak emateko, Europar Batasunaren diru-ekarpen modalitateak, finantza-erantzukizunari eta jabetza intelektualaren eskubideei buruzko arauak, baita emakidan aplikagarriak diren garapen-arauak ere. Arau eta modalitate horiek guztiak ezarriko dira Batzordearen (Europar Batasunaren izenean) eta gauzatze-egitura espezializatuaren artean egingo den hitzarmenaren bidez, baita urteko finantzaketa-hitzarmenaren bitartez ere.

(1) C 323 EO, 2006.12.30eko, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

5. artikulua

Erkidegoak bere diru-ekarpena gutxitu, gorde edo ken dezake, AAL programa bateratua gauzatzen ez bada, edo gaizki, zati batean bakarrik edota berandu gauzatzen bada, AAL programa bateratua benetan nola garatu den ikusita.

Erkidegoak bere diru-ekarpena gutxitu ahal izango du, estatu kide parte-hartzaileek, Israel, Norvegiak eta Suitzak AAL programan diru-ekarpenik egiten ez badute, edo ekarpen horiek zati batean ala berandu egiten badira, betiere Erkidegoaren eta gauzatze-egitura espezializatuaren artean egingo den Hitzarmenean aurreikusitako baldintzen arabera, estatu kide parte-hartzaileek nahiz Israel, Norvegia eta Suitzak esleitutako funts publikoaren zenbatekoaren arabera.

6. artikulua

AAL programa bateratua gauzatzean, estatu kide parte-hartzaileek nahiz Israel, Norvegia eta Suitzak Erkidegoen finantza-interesak babesteko beharrezko neurri legegile, arauemaile eta administratiboak hartuko dituzte, baita beharrezkoa den beste edozein arau ere. Bereziki, beharrezko neurriak hartuko dituzte estatu kide parte-hartzaileek nahiz Israel, Norvegia eta Suitzak, Europar Batasunari zor zaion edozein diru-kopuru osorik itzuliko dela bermatzeko, Finantza Araudiko 54. artikuluko 2. paragrafoko c) idatz-zatian eta garapen-arauetako 38. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoari jarraiki.

7. artikulua

Batzordeak eta Kontuen Auzitegiak, beren funtzionario edo agenteen bidez, Erkidegoko funtsak behar bezala kudeatzen direla eta edozein iruzur edo irregulartasunen aurka Europar Batasunaren finantza-interesak babesten direla bermatzeko beharrezko kontrol eta ikuskapenak egin beharko dituzte. Horretarako, estatu kide parte-hartzaileek nahiz Israel, Norvegia eta Suitzak, baita gauzatze-egitura espezializatuak, Batzordeak eta Kontuen Auzitegiak hala eskatzean, beharrezko dokumentu guztiak haientzako eskuragarri jarriko dituzte.

8. artikulua

Batzordeak beharrezko informazioa emango die Europako Parlamentuari, Europako Kontseiluari eta Kontuen Auzitegiari. Estatu kide parte-hartzaileei, Israel, Norvegia eta Suitzari eskatzen zaie gauzatze-egitura espezializatuaren bitartez Batzordeari aurkeztea Europako Parlamentuak, Europako Kontseiluak eta Kontuen Auzitegiak eskatutako informazio osagarria, hain zuzen ere, gauzatze-egitura espezializatuaren finantza-kudeaketari buruzko informazioa, 12. artikuluko 1. paragrafoan adierazitako informazioa emateko betebeharrak orokorrean dagokienez bidezkoa denean.

9. artikulua

Edozein estatu kide parte hartu ahal izango du AAL programa bateratuan, 2. artikuluko e) eta h) arteko idatz-zatietan xedatutako irizpideei jarraiki.

10. artikulua

Edozein hirugarren herrialdek AAL programa bateratuan parte hartuko du, 2. artikuluko a) eta h) arteko idatz-zatietan xedatutako irizpideei jarraiki, baldin eta parte-hartze hori beharrezko nazioarteko hitzarmen bidez arautzen bada, eta parte-hartze hori alde aurretik onartzen badute Batzordeak nahiz estatu kide parte-hartzaileek nahiz Israel, Norvegia eta Suitzak.

11. artikulua

Europar Batasunak bere diru-ekarpenak egiteko baldintzak zehaztu ahal izango ditu, Erabaki honetan xedatutako arauak jarraiki, eta gauzatze zainari arau eta modalitateen arabera, baldin eta zarpigarren esparru-programan parte hartzen duen edozein herrialdek AAL programa bateratuan duen parte hartzeari dagokionez, edo AAL programa bateratua gauzatze beharrezkoa bada, beste edozein herrialderen parte-hartzeari buruz.

12. artikulua

1. Tratatuaren 173. artikuluan xedatutakoaren arabera, zarpigarren esparru-programari buruzko urteko txostena aurkeztuko da Europako Parlamentuan eta Kontseiluan. Bertan zehaztu beharko da AAL programa bateratuaren jardueri buruzko txosten bat.

2. ALL programa bateratua abian jarri eta bi urtera, Batzordeak tarteko ebaluazio bat egingo dio, edonola ere, 2010. urtean gehienez. Beharrezkoa dela jotzen bada, tarteko lehen ebaluazioaren ondoren beste tarteko ebaluazio batzuk ere egin daitezke.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Tarteko ebaluazioak aztertuko du AAL programa bateratuaren esparruan I. eranskinean zehaztutako helburu nagusiak lortzeko egindako bidea. Horrez gain, gomendioak emango ditu integrazioa, kalitatea eta gauzatzearen eraginkortasuna ahalik eta gehien indartzeko, AAL programa bateratuaren integrazio zientifiko, administratibo eta finantzarioa barne. Bestalde, aztertuko da estatu kide parte-hartzaileen eta Israel, Norvegia eta Suitzaren diru-ekarpenen maila egokia den, betiere kontuan hartuta herrialde bakoitzeko ikerketa-erkidegoen eskari potentziala. Tratatuaren 169. artikulua esparruan, kontuan hartuko da modu bateratuan garatutako beste programetan izandako eskarmentua.

Batzordeak tarteko ebaluazioaren emaitzak jakinaraziko dizkio Europako Parlamentuari eta Kontseiluari. Ebaluazioaz gain, gomendio eta oharrak ere egingo ditu Batzordeak, eta Erabaki honetara egokitzeko proposamenak ere egingo ditu.

3. 2013 bukaeran, Batzordeak AAL programa bateratuaren azken ebaluazioa egingo du. Azken ebaluazio horren emaitzak aurkeztuko zaizkie Europako Parlamentuari eta Kontseiluari.

13. artikulua

Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hiru egunera jarriko da indarrean Erabaki hau.

14. artikulua

Estatu kideak dira zuzentarau honen hartzaileak.

Estrasburgon egina, 2008ko uztailaren 9an.

Europako Parlamentuaren izenean, presidentea: H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean, presidentea: J.-P. JOUYET

ANEXO I

DESCRIPCIÓN DE LOS OBJETIVOS, LAS ACTIVIDADES Y LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA CONJUNTO AAL**I. Objetivos específicos**

El programa conjunto AAL persigue los siguientes objetivos específicos:

- Fomentar la aparición de productos, servicios y sistemas innovadores, basados en las TIC, que permitan envejecer mejor en casa, en la comunidad y en el trabajo, mejorando así la calidad de vida, la autonomía, la participación en la vida social, las competencias y la empleabilidad de las personas mayores, y reduciendo los costes de la asistencia sanitaria y social; esto puede basarse, por ejemplo, en una utilización innovadora de las TIC, nuevos métodos de interacción con el cliente o nuevos tipos de cadenas de valor para los servicios de vida independiente. Los resultados del programa conjunto AAL podrían utilizarse también en beneficio de otros colectivos, en particular de las personas con discapacidad.
- Crear una masa crítica de investigación, desarrollo e innovación, a nivel de la UE, en el ámbito de tecnologías y servicios para envejecer mejor en la sociedad de la información, sin olvidar el establecimiento de un entorno propicio a la participación de las pequeñas y medianas empresas (PYME) en el programa.
- Mejorar las condiciones de explotación industrial de los resultados de la investigación, proporcionando un marco europeo coherente para el desarrollo de enfoques comunes, incluyendo normas mínimas comunes, y facilitando la localización y adaptación de soluciones comunes que sean compatibles con la diversidad de preferencias sociales y aspectos reglamentarios, a nivel nacional o regional, que existen en Europa.

Al centrarse en la investigación aplicada, el programa conjunto AAL complementará las actividades de investigación a más largo plazo relacionadas, previstas en el séptimo programa marco, así como las actividades de demostración que forman parte del programa marco de Competitividad e Innovación (2007 a 2013) establecido mediante la Decisión nº 1639/2006/CE del Parlamento Europeo y del Consejo⁽¹⁾, que se centra en la adopción a gran escala de las soluciones existentes.

Por medio de sus actividades, el programa conjunto AAL contribuirá a la consecución de los objetivos renovados de la Estrategia de Lisboa y de la sociedad basada en el conocimiento, procurando al mismo tiempo que el uso de nuevas tecnologías no sea motivo de exclusión social. El programa deberá fomentar también el desarrollo de soluciones eficientes que contribuyan a asegurar el acceso equitativo y simplificado a aquellos productos y servicios basados en las TIC, incluido el acceso en todas las regiones de Europa —sin olvidar las zonas rurales y periféricas—, a una serie de servicios prestados por un amplio abanico de soportes diversos y respetuosos con la privacidad y la dignidad de las personas mayores.

Por otra parte, el programa conjunto AAL debe fomentar la innovación y la cofinanciación por el sector privado, y en particular las PYME, para los proyectos relacionados con el mercado y la adaptación de la tecnología y las soluciones desarrolladas con los proyectos para responder a las necesidades de las personas mayores, con miras a que su participación social sea cada vez mayor.

Siempre que sea posible, se garantizarán la complementariedad y las sinergias entre el programa conjunto AAL y otros programas en los planos comunitario, nacional y regional.

Se tendrán debidamente en cuenta los posibles problemas éticos y de privacidad, de conformidad con las directrices internacionales.

II. Actividades

La labor principal del programa conjunto AAL consiste en actividades de investigación, desarrollo e innovación. Estas actividades se realizarán mediante proyectos transnacionales de gastos compartidos en los que intervendrán socios de al menos tres países diferentes de entre los Estados miembros participantes, Israel, Noruega y Suiza y otros países participantes, y que consistirán en actividades de investigación, desarrollo tecnológico, demostración y difusión. Deberán centrarse en la investigación orientada al mercado, desarrollarse a corto o medio plazo y demostrar la capacidad de explotar los resultados del proyecto en un plazo realista.

⁽¹⁾ DO L 310 de 9.11.2006, p. 15.

Por otra parte, actividades de intermediación, promoción del programa y establecimiento de redes podrán realizarse a través de actos específicos o en combinación con los existentes. Incluirán la organización de talleres y el establecimiento de contactos con otros interesados de la cadena de valor.

El programa conjunto AAL implicará consultas con los interesados europeos pertinentes (como responsables de los Ministerios y autoridades del sector público, proveedores de servicios y seguros del sector privado, así como la industria, las PYME y los representantes de los usuarios) en relación con las prioridades de investigación que deben abordarse y la ejecución del programa.

El programa conjunto AAL debe tener en cuenta asimismo las tendencias y la investigación demográficas en los diferentes países de Europa, con miras a ofrecer soluciones que reflejen la situación social y económica de la Unión.

III. Ejecución del programa

Programa de trabajo anual y convocatorias de propuestas

El programa conjunto AAL se ejecutará a través de programas de trabajo anuales que identificarán temas de convocatorias de propuestas y que se aprobarán en concertación con la Comisión como base para la contribución financiera comunitaria.

El programa conjunto AAL publicará periódicamente convocatorias de propuestas acordes con el programa de trabajo aprobado. Los solicitantes presentarán las propuestas de forma centralizada a la estructura de ejecución especializada (ventanilla única).

Después del cierre de una convocatoria de propuestas, la estructura de ejecución especializada procederá a un control central de admisibilidad en colaboración con las agencias nacionales que gestionen el programa. Dicho control se efectuará sobre la base de los criterios comunes de admisibilidad del programa conjunto AAL que se publicarán con el programa de trabajo anual y que incluirán, como mínimo, los siguientes:

- la presentación completa de la propuesta en formato electrónico y a su debido tiempo, y
- el cumplimiento de las obligaciones relativas a la composición de consorcios.

Por otra parte, la estructura de ejecución especializada efectuará, con la ayuda de las agencias nacionales que gestionen el programa, un control relativo al cumplimiento de los criterios nacionales de admisibilidad publicados con el programa de trabajo anual y que figurarán en las convocatorias. Los criterios nacionales de admisibilidad solo se referirán a la personalidad jurídica y la situación financiera de los solicitantes individuales, y en ningún caso al contenido de la propuesta, y abarcarán:

- el tipo de solicitante, incluyendo la personalidad jurídica y la finalidad,
- la responsabilidad y la viabilidad, incluyendo la solidez financiera, el cumplimiento de las obligaciones fiscales y sociales.

Las propuestas de proyectos admisibles se evaluarán y seleccionarán en un nivel central, con la asistencia de expertos independientes, basándose en criterios de evaluación transparentes y comunes, según lo establecido en el programa de trabajo. Una vez adoptada por la Asamblea General, esta selección será vinculante para los Estados miembros participantes, Israel, Noruega y Suiza.

La estructura de ejecución especializada será responsable de supervisar los proyectos, y se instaurarán procedimientos operativos comunes para gestionar el ciclo completo del proyecto.

Puesto que de las cuestiones administrativas relativas a los socios nacionales de los proyectos elegidos se ocupará la agencia nacional que gestione el programa, también se aplicarán criterios nacionales de admisibilidad referidos estrictamente a la personalidad jurídica y la situación financiera de los participantes individuales, tal como se indica más arriba, así como los principios administrativos nacionales.

En caso de que, en la fase de contratación, un participante no cumpla alguno de los criterios nacionales de admisibilidad, el programa conjunto AAL salvaguardará la excelencia científica. Con este fin, el consejo de administración podrá decidir llevar a cabo, con la asistencia de expertos independientes, una evaluación central e independiente adicional de la propuesta de que se trate, con el objeto de evaluar la propuesta sin la participación del participante mencionado, o, si así lo propusiere el consorcio del proyecto, con un participante de sustitución.

Cada país financiará a sus participantes nacionales cuyas propuestas hayan sido seleccionadas a través de agencias nacionales que, además, canalizarán los fondos procedentes de la estructura de ejecución especializada, de conformidad con un acuerdo que se celebrará entre las agencias nacionales respectivas y los participantes nacionales en cada proyecto.

Garantizando la integración científica, administrativa y financiera

El programa conjunto AAL garantizará la integración científica de los programas nacionales participantes a través de la elaboración de programas de trabajo y temas de convocatorias comunes para todos los programas nacionales.

La integración administrativa de los programas nacionales será garantizada por la persona jurídica creada por los Estados miembros participantes e Israel, Noruega y Suiza. La gestión del programa conjunto AAL incluirá:

- la organización centralizada de las convocatorias de propuestas,
- la evaluación centralizada, independiente y transparente, por parte de expertos a escala europea, con arreglo a normas y criterios comunes de evaluación y selección de las propuestas, sobre la base de la excelencia científica,
- un único punto de presentación de las ofertas (está prevista la presentación electrónica).

El programa conjunto AAL reforzará la integración financiera:

- garantizando compromisos de financiación nacionales globales durante el tiempo en que se desarrolle la iniciativa, así como compromisos anuales para cada programa de trabajo propuesto,
- garantizando que la clasificación final de las propuestas, establecida sobre la base de la evaluación, sea vinculante para los Estados miembros participantes, Israel, Noruega y Suiza, de conformidad con lo indicado anteriormente, incluida la fase de contratación,
- fomentando en la medida de lo posible la flexibilidad en la asignación de los presupuestos nacionales para poder tratar las excepciones, por ejemplo mediante el aumento de las contribuciones nacionales o la financiación cruzada.

Los Estados miembros participantes harán todo lo posible para reforzar la integración y suprimir los obstáculos jurídicos y administrativos nacionales a la cooperación internacional en el marco de la iniciativa.

IV. Principios de financiación

La contribución comunitaria representará un porcentaje fijo de la financiación pública global procedente de los programas nacionales participantes, pero en ningún caso excederá del 50 % del total de fondos públicos asignados a un participante en un proyecto seleccionado a raíz de una convocatoria de propuestas en el marco del programa conjunto AAL. Este porcentaje fijo se definirá en el convenio formalizado entre la estructura de ejecución especializada y la Comisión y se basará en el compromiso plurianual de los Estados miembros participantes e Israel, Noruega y Suiza y la contribución comunitaria.

Un importe máximo equivalente al 6 % de la contribución financiera de la Comunidad contribuirá a sufragar los gastos generales de funcionamiento del programa conjunto AAL.

Los Estados miembros participantes, Israel, Noruega y Suiza también contribuirán a garantizar el funcionamiento efectivo del programa conjunto AAL.

Los proyectos serán cofinanciados por los participantes.

V. Entregables previstos en la ejecución del programa conjunto AAL

La estructura de ejecución especializada presentará un informe en el que se explicará pormenorizadamente la ejecución del programa conjunto AAL (número de proyectos presentados y seleccionados para financiación, uso de la financiación comunitaria, distribución de los fondos nacionales, tipo de participantes, estadísticas por país, actos de mediación y actividades de difusión, etc.) y los avances hacia una mayor integración.

Los entregables previstos se precisarán en el convenio que se celebrará entre la Comisión, en nombre de la Comunidad, y la estructura de ejecución especializada.

ANEXO II

DIRECTRICES PARA LA GOBERNANZA DEL PROGRAMA CONJUNTO AAL

La estructura organizativa del programa conjunto AAL será la siguiente:

La Asociación AAL, una asociación internacional sin ánimo de lucro de Derecho belga, será la estructura de ejecución especializada creada por los Estados miembros participantes e Israel, Noruega y Suiza.

La Asociación AAL será responsable de todas las actividades del programa conjunto AAL. Sus tareas incluirán la gestión de los contratos y el presupuesto, la elaboración de los programas de trabajo anuales, la organización de las convocatorias de propuestas y la realización de la evaluación y la clasificación de los proyectos. Además, se ocupará de la supervisión de los proyectos y transferirá a las agencias nacionales designadas para el programa los importes correspondientes a la contribución comunitaria. Asimismo, organizará actividades de difusión.

La Asociación AAL estará dirigida por la Asamblea General. La Asamblea General, que será el órgano decisorio del programa conjunto AAL, nombrará a los miembros del consejo ejecutivo y supervisará la ejecución del programa conjunto AAL, incluida la aprobación de los programas de trabajo anuales, la asignación de los fondos nacionales a los proyectos y las solicitudes de adhesión. Trabajarán basándose en el principio de un país, un voto. Las decisiones se adoptarán por mayoría simple, a excepción de las decisiones relativas a la sucesión, admisión o exclusión de miembros o a la disolución de la Asociación, para lo cual podrán establecerse requisitos específicos de votación en los estatutos de la Asociación. La Comisión tendrá estatuto de observador en las reuniones de la Asamblea General.

El consejo ejecutivo AAL, compuesto como mínimo por un presidente, un vicepresidente y un tesorero, será elegido por la Asamblea General para asumir las responsabilidades de gestión específicas, por ejemplo en materia de planificación presupuestaria, personal y celebración de contratos. Será el representante legal de la Asociación y rendirá cuentas a la Asamblea General.

Los Estados miembros participantes e Israel, Noruega y Suiza autorizarán a las agencias nacionales de gestión del programa a emprender los trabajos asociados a la gestión de un proyecto y los aspectos administrativos y jurídicos relativos a los socios nacionales del proyecto, así como a prestar apoyo en las labores de evaluación y negociación de las propuestas de proyectos. Trabajarán bajo la supervisión de la Asociación AAL.

Un comité consultivo, formado por representantes de la industria y otras partes interesadas, incluidos representantes de los ciudadanos de diferentes generaciones, formulará recomendaciones sobre las prioridades y los temas que deben abordarse en las convocatorias de propuestas del programa conjunto AAL.
